

Karmele Aguayo Rico

EHUn Historiako Lizentziatura egin nuen urteetan, nirea informazioaren kudeaketa zela ohartu nintzen. Ziurtasun horrek Granadara eraman ninduen, eta han, hiru urtez oso zoriontsua izateaz gain, Bibliotekonomian eta Dokumentazioan diplomatu nintzen.

Harrezkero, Gasteizko Udal Liburutegietan lan egin dut batez ere, baina baita artxiboetan, prentsan eta Arte Garaikideko Artium Museoan ere. Gustatzen zait trasteatzen ibiltzea, baita teknologia berriak ere.

Gaur egun, Arabako Foru Aldundiko Ignacio Aldecoa Kultur Etxean aurki nazakezue. Formatzen ere jarraitzen dut, aurten Informazio eta Dokumentazioan graduatuko naiz Leongo Unibertsitatean.



Leku horietan guztietan gauza desberdinak ikasi ditut eta, egiten dugunak mundua hobetzen duela uste dut.

Gure lanbidea maite dut eta aspaldi hartu nuen ekintza sindikaletik haren defentsan aritzeko konpromisoa. Orain horretarako unea iritsi zait ALDEEn ere.